

L.L. BONAPARTEREN  
***OPERA OMNIA VASCONICE***  
LIBURUKIEN AURKEZPENA

*Bilbo, 1991-X-18*



## **OPERA OMNIA VASCONICE**

*Liburukiak aurkeztean*


*Bilbo, 1991-X-18*

*Koldo Egia*

*Iberdrola-ren ordezkaria*

Labur, labur, hitz pare bi esan gura ditut:

Louis Lucien Bonaparte printzeak egindako lanari buruz, nik ez dut ezer gehiagorik gaineratuko, arrazoi birengatik: halako gaietan jakitun ez naizelako, eta uste baitut, dena esanda dagoela, eta maisuki esanda baina kezkatzen nauena, Bonapartek berak erakutsi zuen giza jarrera da, esan nahi dut, euskararen aldeko jarrera, Herri honen aldeko jarrera eta honetaz, gizarte kulturaren jarreraz diot, Iberdrolak baduela, neurri batez, halako joera, gure enpresa proiektuak hara agintzen gaituelako.



Argitaratze lan honetan, Iberdrolaren betebeharra, laguntzailearena izan da, diru laguntza emalearena, espresuki. Eta, hau esanda gero, bakarrik falta zait eskerrak ematea, bereziki Euskaltzaindia Erakundeari, euskararen plazaratze ekin-tza honetan, Iberdrolari parte hartzeko aukera eskaini diolako eta eskerrik asko ere, merezimendu handiz, argitaratze lanak prestatu eta burutu dituzuen guztioi. Eskerrik asko.

## **OPERA OMNIA VASCONICE**

### **LIBURUKIEN AURKEZPENEA**

*Bilbo, 1991-X-18*

*Jose Antonio Arana Martija*

Iaz, Louis Lucien Bonaparteren omenez, Nazioarteko Dialektologia Biltzarra prestatzen hasi zenean Euskaltzaindia, printzeak euskaraz argitaratu zituen liburu guztiak berriz faksimilez kaleratzea erabaki zuen Biltzarraren batzordeak 1990.eko urriaren 11an, eta hara hemen, urteren buruan, 1991.eko urriaren 15ean ematen zaigun moldiztegitik lau tomotan argitaratua Bonaparteren lan oparo hau.

Argitarapena prestatzeko ardura hartu nuenean banekien ur handietan sarzen nintzela uger egiten ia jakin barik. Baina lehendik Bonapartez eginda neuzkan ikerketa eta argitarapenekin, printzearen lan eta pertsonaiarekin gustaturik nengoenez, arduratsu baina pozik hartu nuen agindua.

Ondo ezagutzen nuen, eta barka neuk esatea, Euskaltzaindiak zeukan (eta daukan) fondoa. Victor Collins, Bonaparteren katalogatzaileari, erosi zizkion Euskaltzaindiak Louis Lucienek argitaraturiko libururik gehienak. Azkuerekin harreman sendoak zeuzkan Collinsek, 1897an bisita bat egin bait zion printzearen biblioteka katalogatzen ari zelarik euskal liburuak euskalkika taiutzeko. Euskaltzaindiak gero, 1920-1921 bitartean Collinsek salgai zituen ale batzu erosi zizkion. Baina argitarapen batzu urriak izan zirenez, hamar alekoak batzu, ezin izan zituen orduan Euskaltzaindiak lortu. Beraz, Bonaparteren lan osoa eskuratzeko zailtasuna sortu zitzaidan lehen unetik.

Banekien, esate baterako, Zarautzko Komentua izan zitekeela Bonaparteren liburuen kokaleku bat, Jose Antonio Uriarte frantziskotarra eta Bonaparteren laguntzailerik ospetsuena bertan bizi izan zelako azken urteetan. Duvoisin eta Intxauspe, beste laguntzaile handiak, Baiona inguruan ibili zirela argi zegoen, eta hara ere jo beharko nuela liburuen bila iruditu zitzaidan. Monzonen bibliotekan ere, Lacomberi erositakoa bait zen, aleren batzu bazeudela nekien, nahiz eta ezin lortu handik ezer ateratzea, fotolitoak egiteko beharrezkoa zen liburuak kokalekutik eskuratzea eta.

Aurtengo martxoan hasi nintzen Euskaltzaindian ez zeuden beste liburu guztiak biltzen. Esan dezadan, proiektua azaldu ondoren, erraztasun guztiak aurkitu nituela liburuak jasotzeko. Zarautzen aurkitu nuen *San Mateoren Ebanjelioa* bizkaieraz Itxaropena moldiztegian fotolitatuta nuen. Oleren *Formulaire de*

*prône* Nafarroako Biblioteka nagusian dagoena, Iruñeko Fonasan fotolitatu nuen. Eta beste guztiak, hots, Gipuzkoako Foru Diputazioarenak, Euskaltzaindiaren eta Baionako Udal Bibliotekakoak, Bilboko Kamara etxean egin nituen. Chicago Newberry Librarytik hartutako mikrofilme bat ere erabili dugu argitarapen honetan, eta Londreseko British Librarytik Geoffrey West adiskideak igorritako beste bat ere. Beraz, ikusten denez, toki askotara jo behar izan dugu Bonaparteren lan osoa biltzeko.

Oztopo guztiak gaindituta, hemen dugu lan baliotsu hau. Alde batetik Euskaltzaindiak eta Euskal Herriak Bonaparteri egiten dion omenaldia da heriotzearen mendeurrenean eta Nazioarteko Dialektologia Biltzarra hasteko bezperetan. Bestalde, gure dialektologiaren ikerketarako lan ezinbestekoa, zaila bait zen liburu guztiak eskura izatea. Esan behar da Bonapartek argitara emandako euskal liburuetatik gehienak agertzen direla bigarren argitarapen faksimilatu honetan, Duvoisenen *Biblia* izan ezik; eta hau bi arrazoiengatik: beste hiru tomo atera behar izango genituelako, edizioa garestituz, eta salgai dagoelako beste Biblia honen argitarapen faksimile bat. Jean Baptiste Archuk Bonaparterentzat egin zituen itzulpen biblikoak ere ez dira agertzen. Eskuzkribuak mikrofilmaturik ditugu Euskaltzaindian eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako artxibategietan. Baina ez zituen Bonapartek argitaratu, Londreseko Bible Societyk baizik. Intxauspen *Le verbe basque* eta Salaberry d'Ibarroleren *Vocabulaire* ere ez dira argitaratzen, itzulpenak ez bait dira.

Liburuak utzi digutenei eskerrik beroenak eman behar dizkiegu gaur eta hemen. Aipamen berezi bat behar du Grafo moldiztegiak, eta hemen aurkitzen den Iñaki Riscori, zuzentzen diot gure eskerrona, profesonalki eta maitasunez burutu dutelako lan erraldoi hau. Eta nola ez Iberdrolari eman digun dirulaguntzagatik. Berezi aipatu nahi nituzke eskerroneko une honetan Ignacio Elorza eta Luis de Leon jaunek beti eman diguten harrera onagatik. Eta etorri diren prentsakoei, Euskaltzaindiaren izenean gure eskerrona.

## OPERA OMNIA VASCONICE

*Bilbo, 1991-X-18*

*Jean Haritschelhar*

*euskaltzainburua*

Jaun Andereak agur,

Duela urte bat, 1990eko uztailaren 11-n hain zuzen, etxe honetan geunden Azkueren *Cancionero Popular Vasco* hirugarren agerpenaren aurkezteko.

Aurten, urte berri bat da Euskaltzaindia-rentzat. Alabaina, ohoratu nahi du Louis Lucien Bonaparte printzea haren heriotzearen mendeurrenean. Euskal dialektologiaren aitaren behar den bezala ohoratzeke, Euskaltzaindiak apailatu ditu, urtean zehar, lehenik erakusketa bat, Londreseko New Library delakoan aurkeztua joan den otsailan, argitaratu gero *Euskera* agerkarian Jose Antonio Arana Martija-k paratutako “Bibliografia Bonapartiana”. Datorren astean, Egoitza berriaren inauguraziotik landa hasiko da dialektologiari buruz eginikako nazioarteko kongresu ospetsu bat Europako dialektologoetarik hoberenak bilduko dituen.

Ekintza horien artean egun aurkezten dugu Louis Lucien Bonaparte printzearen *Opera Omnia Vasconice* lau liburuki marduletan. Utziko diot lau liburuki horien paratzailea den Jose Antonio Arana Martija-ri “opera magna” honen presentatzeko ardura, berak baitaki nik baino hobeki nola bildu dituen Bonaparte printzearen obrak.

Bakarrik erran dezakedana da Euskaltzaindia-k hartu duela agerpen honen egitearen erabakia, bazekielakotz osoki sakabanatuak zirela Bonaparte printzearen lanak. *Opera Omnia Vasconice* honen argitaratzea lan baliosa da Euskal Herri-rentzat. Pentsa dezagun, Unibertsitateko ikaskeek, irakasleek eta mundu guziko ikerlariek eskupean ukanen dituztela Bonaparte eta haren laguntzaileen lanak, eskupean ukanen dituztela hainbat euskalkitan itzuliak izan diren testuak eta hori dela, azkenean, altxor paregabeko bat. Ez da dudarik argitarapen honi esker bultzada eder bat emaiten diola Euskaltzaindiak euskal ikerpenari eta horrek ondorio baliosak ukan ditzakeela.

Iberdrola-ko zuzendariek ulertu dute lan honen balioa, onartu dute Euskaltzaindiaren asmoa eta ordaindu dituzte argitaratzearen gastuak. Eskerrak zuei Jaunak, egin diguzuen diru laguntzaren gatik. Ez duzue debaldetan egina eta denbora berean erakustera emaiten duzue Euskal Herri honetan bizi zaretela, nahi dituzuela lagundu euskal kultura eta euskara.

Nere eskerretan ez dut ahantzi nahi Jose Antonio Arana Martija liburu hauen paratzailea. Badakigu zer lan egiten duen Euskaltzaindian, aurten bereziki, Bonaparte-ren erakusketa apailatuz, "Bibliografia bonapartiana" preparatuz, eta lau liburuki hauek paratuz. Euskaltzaindiaren izenean eskerrik beroenak eskaintzen dizkiot.

Eskerrak ere Grafo irarkolari eta bereziki Iñaki Risco jaunari, hain ederki artatu eta apaindu duelakotz edizio hau. Obra ederra da mamiz, ederra da ere itxuraz.

Iberdrola-k eta Euskaltzaindia-k ospatzen dute Louis Lucien Bonaparte printzearen mendeurrena ikasle, irakasle eta ikerlari munduari eskainiz *Opera Omnia Vasconice* hau. Ez da lehen aldia elgarrekin, eskuz esku jokatzeko direla, segur naiz ez dela azkena izanen. Bertze aldi bat arte eta berriz ere eskerrak denei.